noaua

HERRIA HERRITIK BESTE 25 BAIETZ!

Hirusta Trio taldeak borobilduko du Martxoaren 8aren inguruko egitaraua

Argazkia: Pasaiako portua, Kutxa fototeka

Udarregiko LH6ko ikasleak: “Elkartasun Astean ateratako dirua, Nepalen hezkuntza jasotzeko zailtasuna duten emakumeei laguntzeko erabiliko dugu”

AR-DESIGN

AUTO-TAILERRA ·AUTOEN KONPONKETA
·MEKANIKA · MARKA GUZTIAK ·PRE-ITV ·GURPILAK

·KAMPER FURGONETA ETA AUTOKARABANENTZAKO
OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK
·ZURE FURGONETA KAMPER BIHURTZEKO
AHOLKULARITZA,OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK

633 12 44 00

AR_._DESIGN

OSINALDE POLIGONOA Ondarzulo, 11 USURBIL info@ar-design.eus www.ar-design.eus

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 14, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia 17.30 / 2. deialdia 18.00

GAI-ZERRENDA:

1) 2022ko memoria eta balantze ekonomikoa
2) 2023ko egitasmoak eta aurrekontuak
3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4) Galdera erantzunak

noaua

Albisteak iruditan

Zumetaren muralera bisita gidatua

Zumetaren muralaren kontserbazio lanak amaitzear dira, eta herritar batzuek aukera izan zuten igande goizean Usoa Zumetarekin eta Azucena Priorrekin muralaren historia eta kontserbazio lanen nondik norakoak ezagutzeko.

Usoa Zumetak aitaren historia kontatu zuen, murala egiteko prozesuaz aritu zen eta Usurbil zein Euskal Herriko historian lan honek izandako garrantziaz. Ondoren, Azucena Prior kontserbazio lanen arduradunak prozesua zertan den eta zer egin duten azaldu zuen. Herritarrek denetariko galderak eta usteak partekatzeko aukera izan zuten prozesuan. Muralaren inaugurazioa apirilean egingo dute.

Usoa Zumetak murala eraikitzeko prozesuaren inguruko hainbat xehetasun eskaini zituen.

Laburrean

NOAUA!rako oharrak astelehenerako igorri

Datozen martxoaren 17, 24 eta 31ko aldizkariak astelehenetan eramango ditugu inprentara. Honenbestez, oharrik baldin baduzue, aurreko ostirala baino lehen helarazi bideotatik: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321.

Larunbat honetan, Oriako Traineru Jaitsiera

Orian barrena jokatuko den probak Euskal Herriko nahiz Mediterraneo aldeko taldeak batuko ditu. Aginagako Mapil eta Sarikola Oriorekin lotuko ditu larunbat honetako probak. 17:00etan hasi eta 18:30ak aldera amaituko da jaitsiera.

Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

Martxoaren 9an izango da lehen saioa: 16:30ean Goi Mailako zikloetako ikasleentzat, 18:00etan Erdi Mailako zikloetakoentzat. Maiatzaren 3an eta 6an hurrengo saioak. Informazio gehiagorako: 943 364 600 / lhusurbil.eus

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Usurbilgo Udala
Euskal presoak
Euskal Herrira!

Gipuzkoako Foru Aldundia

Alazne Arruti

Geroari izkin egin gabean

Oroitzen dut behinola, eskolan geunden garaian, irakasleek ariketa bitxi bat proposatu zigutela. Orri zuri batean, galdera batzuk genituen erantzuteko. Non irudikatzen duzu zure burua x urtera? Non biziko zara? Zein izango da zure lan arloa? Halakoren bat galdetzen ziguten eta gu artean, urduri, elkarri begira eta lotsagorrituta. Orainari barrezka eta etorkizunari izkina egin nahian.

Oroitzen dut handik denbora batera, ostera ere gurekin partekatu zutela garai hartan idatzitakoa eta kosta egin zitzaidala idatzi nuenarekin identifikatzea. Oker ez banago, Zarautzen bizi nahi nuela esan nuen (ez dakit zer narabilen buruan, benetan). Hori bai, itsaslabar batean edo herrigunetik bereizi samar kokatzen nuen lekua bera, kosta eta mendiaren topagunean. Kresala eta berdearen elkargunean. Beraz tira, naturarekin kontaktua mantentzeko gogoa onartu nuen behintzat. Bestetik, irakaslea izan nahi omen nuen. Eta ez dakit zein momentutan lausotu zitzaidan ideia hori, baina ez dut aspaldian buruan izan, ez eta haren falta sumatu ere, hartutako bidea hartu izanagatik.

Kontua da, hau oroitzean, nire buruari kontrako ariketa proposatu diodala: noizbait pentsatu ote dut egun nagoen tokira helduko nintzenik? Eta ez daukat erantzun ziurrik, bizitzak ibilbide sigi-sagatsuak hartzen baititu maiz. Eta burua altxa beharra dago honetaz jabetzeko.

"Ez dakit gutako askok ez ote dugun zahartzaroaz, begirada mugatuegi bat (...). Eta aukera berrietara begirada jartzeaz ahaztuak ez ote gauden".

ALAZNE ARRUTI

"Aurrera begira, jaso dudan besteko tratua eskaini nahiko nieke maite ditudanei"

Eta zuek, zer diozue? Eta bide batez, non ikusten zarete hemendik denbora batera? Pentsatu ohi duzue zahartzaroaz? Norekin bizi nahiko zenukete? Bakarrik bizitzeko prest zeundekete? Edo derrigorrean, elkarbizitza eta egunerokotasuna norbait(zu)ekin partekatu nahiko zenukete? Etxeren bat jabetza izateko nahia edo gaitasuna duzuelakoan zaudete? Alokairuan bizitzeko prest zinatekete? Edota zaharren egoitzaren batean?

Ba nik ere, galdera baina zalantza gehiago ditudala aitortu beharra dut. Une honetan, ustezko heldu izatearen nekeza eta gaztaroaren gozoan dantzan sentitzen bainaiz. Nire zaintzaz gain, inguruan dauzkadanak zaintzeko ahaleginak egiten nabil eta aurrera begira, jaso dudan besteko tratua eskaini nahiko nieke maite ditudanei. Baina batzuetan, egoerak ez dira nahi bezain arrunt edo errazak. Eta une horietan, eskuragarri ditugun aukera guztiak aztertu beharrean gaude.

Askotan entzun izan diet gurasoei, erdi bromatan baina serioski ziurrenik, ez luketela egoitzaren batean sartzerik nahi. Tarteka, autorik gabe geldituz gero, euren beharrak asetzeko zenbateko menpekotasuna izango luketen ere pentsatu eta aipatu ohi dute. Baina hala ere, baserrian gustura bizi direla eta ea "non hemen baino hobeto" diote.

Jakina da ordea, askotan beharrak gain egiten duela eta ez dakit gutako askok ez ote dugun zahartzaroaz, begirada mugatuegi bat. Garai bateko esperientziak soinean daramatzagunez, aurrea hartu gaituztenek baino hobetoxeago apaltzen joateko esperantzari heldu nahian, ote gabiltzan. Eta aukera berrietara begirada jartzeaz ahaztuak ez ote gauden.

Eta benetan pozten du, herri bat zaintzaren arloa erdigunera ekartzeko saiakeran ikusteak. Errealitate ezberdinak partekatu eta luzaroan bizitza autonomoagoak eraikitzen jarraitzeko proiektuak elikatzen jarduteak. Baina erronka, haratago doalakoan nago.

Izan ere, gu guztion iruditeria aldatu beharrean gaude. Familiako etxe handiak, osotasunean erabilera askorik gabekoak partekatzeko, transmititu diren traba eta mamuak identifikatu eta gainditzeko unean. Herrien erdigunetatik kanpoko bizipenei ere leku bat egiteko aukeran. Zaintzak osotasunean eta zentzu zabalenean, gure txoko guztietako bizien erdigunean ezartzeko garaian bertan.

Alazne Arruti Bengoetxea | Ainhoa Azpirotz Eizmendi | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



N-634 errepidea, gauez itxita

Foru Aldundiak errepide inguruetako zuhaitzak inausi eta mozten dihardu. Aste honetan N-634 errepideari egokitu zaio. Gaueko 22:00etatik 6:00etara itxiko dute Usurbilgo tartea eta, atzerapenik ez bada, martxoaren 10ean amaituko dira mozketak. Hala jasoa dator Aldunditik igorri diguten prentsa-ohar batean.

Egunez trafiko handia izaten denez, zuhaitzak inausi eta mozteko lanak gauez egingo dira, "zerbitzuko eta bide-segurtasuneko arrazoiak tarteko". Martxoaren 6tik 7rako gauean hasi ziren eta "martxoaren 9tik 10erako gauean amaituko dira". Errepidea asteburuan zehar garbi geratuko dela diote Aldundiako iturriek.

Mozketa Atxegaldetik Orioko Txankako biribilgunera luzatuko da.

ITXIERA EGUNAK

Martxoaren 6tik 7rako gauean hasi zen mozketa eta "martxoaren 9tik 10erako gauean amaituko da"

Bertan bizi direnentzako oharra

Mozketa Atxegaldetik hasi eta Orioko Txankako biribilgunera bitartean izango da. Mozketaren muturrak mugitzeko aukera egongo dela diote, lanek aurrera egin ahala, moztutako errepide zatia ahalik eta gehien mugatze aldera.

Horrez gain, Foru Aldunditik ziurtatu dute eremu horretako bizilagunei pasatzen utziko dietela: "Gauero lan egiten den lan-punturaino joateko baimena emango zaie, baina adierazi behar da AP-8 errepidetik desbideratu behar dutela, baldin eta beren bizilekua hortik harago badago". Eskatzen duten larrialdi zerbitzuei ere bidea erraztuko dietela adierazi dute.

Txikierdi eta Troia arteko lanen amaiera, atzerapenarekin

Otsailaren 28an amaitzekoa zen Txikierdi eta Troia arteko obra: errepidearen eta trenbidearen arteko horma sendotzeko lana. Aste honen hasieran, semaforo-sistemak bere horretan zirauen. Informazioa bildu asmoz, Foru Aldundiaren prentsa arduradunekin jarri ginen harremanetan baina ez dugu erantzunik jaso.

Foru Aldundiak errenta aitortzeko datak iragarri ditu

Iazko errenta aitortzeko datak finkatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Honako hauek dituzue:

- Apirilak 3-ekainak 30: Autolikidazio proposamenak onartzea.
- Apirilak 12-ekainak 30: Internet bidez aitorpenak aurkeztea.
- Apirilak 13-ekainak 8 (epea luzatu daiteke ordu libreak egonez gero): Errenta mekanizaturako hiztordua eskatzea.
- Apirilak 17-ekainak 30: Errenta mekanizatuaren aitorpena aurkeztea.

Informazio gehiago: gipuzkoa.eus atarian.

Autolikidazio proposamenak onartzeko epea apirilaren 3an zabalduko da.

Lanbide Eskolako ikasleak, Vex Robotics Competition-en

Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleak Bartzelonan izan dira asteburu honetan Vex Robotics Competition txapelketan lehiatzen. Era honetan, iaz hasi zuten Steam izeneko ibilbidean urrats berri bat eman dute.

Steam egitasmoaren bueltan bi talde ari dira aurten: lehen mailan hasi berri diren ikasleak eta jada bigarren urtea osatzen ari direnak. Azken hauek Lego Spike delakoaren oinarriak landu ondoren, Vex robotarekin aritu dira lanean. Emandako urratsak Vex Robotics Competition lehiaketan erakutsi ahal izan dute.



Argazkian, Bartzelonan izan den lan-taldea.

Bartzelonako Ingeniaritza Eskolan antolatzen den lehiaketan, Euskadiko Lanbide Heziketako taldeen artean lehenak izan dira Zubietako eskolakoak. "Kualifikazio frogan 3. postua erdietsi zuten eta ondorengo binakako txapelketan, lehenak izan ziren Gironako talde batekin batera", Lanbide Eskolatik aditzera eman dutenez.

Taldekideak

Hauxe Bartzelonan lehian izan zen lan-taldea: Usurbilgo Gorka Arroyo eta Jon Arruti; Lasarte-Oriako Gurutz Balerdi, Amaia Gainza eta Ander Maestro eta Zumaiako Josefa Molina.

Robotika arloko prestakuntza

Steam prestakuntza osagarria iaz eskaintzen hasi ziren Usurbilgo Lanbide Eskolan Innova't Educació enpresarekin elkarlanean. Robotika oinarri hartuta, matematika, fisika, ingeniaritza, ordenagailu bidezko programazioa edota pentsamendu kritikoa lantzen dituzte.

Udaleko lan eskaintza publikoan izen-emateko garaia

Espainiako Gobernuak 2021eko abenduan onartutako Egonkortze Legeari jarraituz, 26 lanpostuko lan eskaintza publikoa onartu zuen Usurbilgo Udalak iazko maiatzean. "Administrazio publikoko lanpostuen behin-behinekotasun tasa jaistea du helburu", Usurbilgo Udaletik gogorarazi dutenez.

2021eko abenduan onartutako legea derrigor bete beharrekoa da. "Egutegi bat zehazten du gainera, eta 2024ko abenduaren 31rako amaitu behar dira prozesu guztiak", Udalak azaldu duenez.

Orain, urrats berria ematera doaz. Deialdi honetan izen-emateko epea zabaldu du Udalak astearte honetan bertan, martxoaren 7an. Ohi bezala, interesdunek bi modutara bideratu ahalko dute inskripzioa, apirilaren 3ra bitartean; udal erregistrora joanda, edo telematikoki usurbil.eus bidez.

Ia denak, meritu bidezkoak

Guztira 26 lanpostuko eskaintza egingo du Udalak, "ia denak (25) meritu lehiaketa hutsez ebatziko dira, eta bakarra oposizio-lehiaketa bidez". Bi prozesu mota hauek aurreikusten ditu hain zuzen Egonkortze Legeak. Deialdi honetara, "baldintzak betetzen dituen edonork aurkeztu ahal izango du: lanpostua behin-behinean betetzen ari den langileak, administrazio bereko beste langileek, beste administrazioetakoek, enpresa pribatuan lan egiten dutenek... Izan ere, legearen arabera, egonkortuko direnak lanpostuak izango dira, eta ez gaur egun horiek betetzen ari diren langileak".

Deialdi honetan izena emateko epea martxoaren 7an zabaldu zen.

EGONKORTZE LEGEA

"2024ko abenduaren 31rako amaitu behar dira prozesu guztiak"

26 lanpostuko eskaintza

Deialdi honen oinarriak kaleratu zituen martxoaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofizialak. Usurbilgo Udalak halere, deialdia abenduaren 15eko ebazpenaren bidez eman zuen ezagutzera. Abenduaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen xehetasunak.

Bi prozesu mota bideratuko dira

Bi prozesu mota bideratuko dira lanpostu hauek guztiak betetzeko. "Lanpostuaren arabera, oposizio-lehiaketa (azterketa) bidez edo meritu lehiaketa hutsez egingo dira prozesuak". 26tik 25 meritu lehiaketa hutsez ebatziko direla berri eman du Udalak, "eta bakarra oposizio-lehiaketa bidez".

Lehiaketa-oposaketa sistema bidez:

■ Administrazio bereziko teknikaria (erdi maila) (A2): plaza 1.

Meritu lehiaketa bidez lanpostuok beteko dira:

■ Administrari laguntzaileak (C2): 2 plaza.
■ Administrariak (C1): 4 plaza.
■ Administrazio orokorreko teknikaria (erdi maila) (A2): plaza 1.
■ Administrazio bereziko teknikaria (erdi maila) (A2): plaza 1.
■ Administrazio orokorreko teknikaria (goi maila) (A1): plaza 1.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (E). 6 plaza (Plazetako bat desgaitasun erreserban).
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (C2): plaza 1.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (C1): plaza 1.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (C1); udaltzaina: plaza 1.

Bildutako laboralak:

■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (C2); oinarrizko lanbide heziketa (ileapaineta): 2 plaza.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (C2): oinarrizko lanbide heziketa (sukaldaritza): 2 plaza.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (A2): oinarrizko lanbide heziketa (1go maila): plaza 1.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (A2): oinarrizko lanbide heziketa (2. maila): plaza 1.
■ Administrazio berezia, zerbitzu bereziak (A2): oinarrizko lanbide heziketa (koordinatzailea): plaza 1.

Agerreazpiko udal baratze parkeko kontzesioak berritzeko garaia da

■ Partzelen kontzesioa zozketa bitartez ebatziko da.
■ Eskaera Usurbilgo Udalean aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko otsailaren 27ko bigarren eta hirugarren eranskinak beteta.
■ Eskaeren artean lehentasun taldea osatuko dute langabetuek, jubilatuek, pentsiodunek, gazteek (gehienez ere 25 urte), familia ugariek, emakumeek eta udal baratzetako konpostatze komunitarioko arduradunek. "Lehen zozketa, lehentasuna dutenen artean izango da. Ondoren, partzelarik esleitzeko balego, gainontzeko eskatzaileen arteko zozketa izango da", udalaren prentsa-oharrean jasoa datorrenez.
■ Esleipendun berriak lehendik udal baratzeen erabiltzaileak badira, aurretik lantzen duen udal baratzea esleituko zaio, azalera bereko baratzea eskatzen badu.
■ Esleipendunen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, eta 10 egun balioduneko epea izango da alegazioak aurkezteko. Horren ostean, onartutakoen eta baztertuen behin-betiko zerrenda argitaratuko da. Dena den, zerrenda horretan onartuta egoteak ez du esan nahi partzela zuzenean adjudikatu denik: partzelen adjudikazioa egiteko beste zozketa publiko bat egingo da, Sutegin (aurrerago jakinaraziko da zein egunetan izango den).
■ Erabiltzaileek Agerreazpiko udal baratzeen elkartearen parte izan beharko dute: uko eginez gero, edo elkarteko betebeharrak ez egiteak partzela erabiltzeko eskubidea galtzea dakar.

San Esteban kalea egokitzeko lanak hastear dira

Etxealdia auzune irisgarriagoa eta atseginagoa bilakatzeko bidean, hara jaitsi nahiz handik igotzeko, eta baita, tren geltokira, Santuenera edo handik Kaxkora etortzeko herri barneko mugikortasunarerako ardatz nagusia den kalea egokitzeko lanak hastear dituzte, Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez.

Gogoan izan, oinezkoak lehenetsiko dituzte. Lanok esleitzear dira. "Sasoi Eraikuntzak enpresak egin du proiektua gauzatzeko eskaintzarik onena, eta lanak esleitzean hasiko dira lanean; aurreikuspenen arabera, hilabete inguru barru izan daiteke", zehaztu du Udalak. Gainazala soilik ez, azpiegiturak berritzeko ere baliatuko dituzte lanok. "Lurzorua egokitu behar denez, azpiegiturak berritzeko ere aprobetxatuko dute; 196.800 euro inguru kostako dira lanak, eta enpresaren esanetan, hiru hilabete beharko dituzte". Obrek iraun artean ere, "oinezkoek bertatik pasatzeko aukera izango dute", ohartarazi du Udalak.

Oinezkoak lehenetsiko dituzte. Lanak esleitzear dira.

UDALA

"Lurzorua egokitu behar denez, azpiegiturak berritzeko ere aprobetxatuko dute"

San Esteban kalea egokitzeko lanen lehen fasea izango da honako hau. "San Esteban kalea bere osotasunean berritzeko proiektua idatzia du udalak, baina oraingo honetan kalearen zati bat egingo da, goikoa: Kale Nagusitik behera hasita, auzora jaisteko eskaileren ingurura arte. Beste zatia, San Esteban kalea tren geltokirako zubiarekin lotzen duena, tren geltoki berriko obrak amaitzean egingo dute. Izan ere, San Esteban kalearen zein tren geltokiaren obrek bat egingo dute denboran, eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltze aldera, bi proiektuak uztartzea garrantzitsua izango da".

Dirulaguntzen eskariak

Martxoaren 17ra arte aurkeztu ahalko dira eskabideak Udalaren dirulaguntza lerro gehienetarako, ekintzaileei zuzendurikoak irailaren 30era arte eta norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloari lotutakoak abenduaren 1era arte. Informazio gehiago, otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

"Plazen arteko eskailerek oinezkoen joan-etorria erraztu eta tokiko merkataritza sustatzea dute helburu"

Tokiko merkataritza sustatzeko hirigintza lanak egunotan herri erdigunean, Dema, Askatasuna eta Eguzkitzaldeko Sagardo plazak hurbiltzeko, gerturatzeko. Eskilarak eraikiko ditu udal brigadak hilabete honetan zehar, plaza batetik bestera. Hala jakinarazi du Usurbilgo Udalak. "Eskailerek plazen artean oinezkoen joan-etorria erraztu eta tokiko merkataritza sustatzea dute helburu".

Modu horretan, inguruotako merkataritza eremu nagusien arteko lotura indartu nahi dute. "Dema plazaren eta Zubiaurrenea kalearen inguruan daude herriguneko bi merkataritza eremu nagusi, baina eremuaren ezaugarri urbanistikoek bien arteko lotura oztopatzen dute. Hala, Askatasuna plazako eskailerek helburu horri erantzuten diote".

Udal brigadak hilabete honetan zehar eraikiko ditu Askatasuna plaza eta Sagardo plazaren arteko eskailerak.

APARKALEKUAK

"Zubiaurrenean galduko diren bi aparkalekuak Potxoenea aurrean irabaziko dira"

Zubiaurrenea kaleko ibilgailuentzako bi aparkaleku kenduko dituzte lanokin. Udalak ohartarazi duenez, aldiz, "Potxoenea aurrean bi berri sortu dituzte, beiraren edukiontzia lekuz aldatu, eta lurrazpiko edukiontziak kenduta".

Udaletik gogorarazi dutenez, "neurri hori bera Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuak indarberritzeko planean jasoa dago, 2020an egin zen diagnostikoaren ostean proposatu zituzten ekintzen artean".

"Berritzeko beharra"

2009an egin zen hain zuzen sektore honetako plana estreinakoz. Legealdi hasiera honetan hasi ziren eguneratzen Usurbilgo Udala, Siadeco eta Hurbilago, "berritzeko beharra" ikusi zutelako. "Batetik, ordutik hainbat alorretan izan diren aldaketak behatu nahi izan zituzten (kontsumo ohituren aldaketa, Intenetez eta saltoki handietan kontsumitzeko joeraren gorakada). Bestetik, aurrera begira herri merkataritza eta ostalaritza bizibiberritzeko zein bide jorra daitezkeen aztertu nahi zuten. Horrekin guztiarekin, gutxienez bost urterako ekintza plan bat zehaztu zuten".

Soinurbil, musika astetik haratago

Zumarte Musika Eskolak antolatu duen ekimenaren hemeretzigarren edizioak orain arteko astebeteko tartea gainditukо du.

Martxoak 16, osteguna

■ 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua.

■ Tokia: Aginagako Eliza Zaharra.

■ Zehaztasunak: "Zumarte Usurbilgo Musika Eskolako talde instrumental desberdinek kontzertua eskainiko dute eta Orbeldi Dantza Taldeko kideak ere bertan izango dira emanaldian parte hartzen".

Martxoak 18, larunbata

■ Orquesta Reusonicaren tailerra eta kontzertua:

-11:00 Musika Eskolan.

-19:00 Frontoian.

■ Zehaztasunak: "Hondakinak diren objektuak eta materialak sormenez berrerabiliz, ikuslea sentsibilizatzea dute helburu".



Pol Álvarez i Vicianak organo kontzertua eskainiko du martxoaren 23an Salbatore elizan.

ZUMARTEKO IKASLEAK

"Martxoaren 16an Aginagako Eliza Zaharrean arituko dira, arratsaldeko 18:30ean"

Martxoak 20, astelehena

■ 18:00/19:00 Organo erakustaldia Salbatore Elizan.

■ Tokia: Salbatore Eliza.

Martxoak 21, asteartea

■ 18:00 "Kiliklon Txorotxarranga" kalean.

Martxoak 22, asteazkena

■ 19:00 Astigarragako musika eskolarekin trukaketa Sutegiko auditorioan.

Martxoak 23, osteguna

■ 19:00 Pol Álvarez i Vicianaren organo kontzertua Salbatore Elizan.

■ Zehaztasunak: "14 urte zituenetik ari da kontzertista bakarlari gisa. Halaber, kontzertuak eman ditu laguntzaile gisa, bai Katalunian, bai nazioarteko jaialdietan. 2017az geroztik, Kirchenmusiker (organo jotzaile titularra eta koruzuzendaria) da Alt Heumaden elizan, Stuttgarten".

Martxoak 24, ostirala

■ 18:30 Habia taldearen "Hiru hari, hiru ahots" emanaldia Sutegiko auditorioan.

■ Zehaztasunak: "Tradiziotik ateratako doinuak eta beraien sorkuntzakoak jotzen dituzte".

■ Sarrera: 5 euro, aurrez usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Martxoak 26, igandea

■ 12:15 Caparrosoko musika banda kalean.

■ 13:00 Kontzertua frontoian.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak: Salbatore Parrokia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa.

'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroko bi saio egingo dira martxoan

Bi saio iragarri ditu Alkartasuna Kooperatibak martxorako:

Martxoak 10, ostirala

■ 15:30-18:30 'Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa', Josu Osa adituarekin.

■ Azalpena: "Neguko txertaketari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Zortzi txerto mota baino gehiago ikasiko ditugu".

Martxoak 17, ostirala

■ 15:30-18:30 "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandia adituarekin.

■ Azalpena: "Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira; ekoizpenaren hobekuntza. Arbolaren erregulazioa fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu. Ongarriketa desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira".

Martxoaren 17an Aitor Etxeandia izango da ikastaroa gidatuko duena.

Izen-ematea:

■ usurbilkultura.eus

■ alkartasuna.eus

■ 943 361 114.

Jende asko batu zen 'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiaren aurkezpenean

'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiaren sortze prozesuaz aritu zen Joseba Larratxe ilustratzailea aurreko ostiralean Sutegi udal liburutegian. Hitzez eta irudiz erakutsi zituen lanaren nondik-norakoak, herritar askoren aurrean.

Joseba Larratxek komikiaren inguruko gako ugari azaldu zituen udal liburutegian.

Victoria Chernenko, Ukrainako gerra girotik ihesi gure artera etorri den margolaria

Gure solaskidea Ukrainatik Euskal Herrira etorri zen bere familiarekin, Errusia Ukraina inbaditzen hasi eta hilabete gutxira. Victoria Chernenko Arte Ederretako irakaslea da eta Usurbilgo eta inguruetako paisaiak zein animaliak eta landareak pintatu ditu azken aldian. Orain, lan horietako batzuk Artzabalen daude ikusgai.

Akuarela bilduma batekin erakusketa bat zabaldu du Artzabal tabernan.

NOAUA! Obra batzuk egin dituzu Usurbilen. Zer egin zaizu erakargarri Usurbildik?

Victoria Chernenko: Herriko arkitektura izugarri gustatzen zait. Eliza pintatu nuen, adibidez, oso zaharra iruditu zitzaidan, baina benetan ederra. Loreak ere askotan margotzen ditut, baita animaliak eta naturako gainontzeko elementuak ere. Artzabalgo irudia ere arkitekturagatik egin nuen.

Zenbat denbora behar da horrelako lan bat egiteko?

Normalean ez dut denbora askorik behar izaten. Egun batean edo bi egunetan egiten ditut mota honetako lanak. Margotu nahi dudan hori bilatzen dut eta lanean hasten naiz berehala.

Zer-nolako teknikak erabiltzen dituzu?

Artzabalen ikusgai daudenak akuarelak dira, baina oleoarekin ere aritzen naiz, bai eta akrilikoekin ere. Bestelako teknikak ere erabiltzen ditut batzuetan, baina, batez ere, horiek dira nire material eta teknika nagusiak.

VICTORIA CHERNENKO

"Usurbilgo arkitektura izugarri gustatzen zait. Eliza pintatu nuen, adibidez. Oso zaharra iruditu zitzaidan baina benetan ederra"

Artzabalen jarritako obrak edo zure lanak eros daitezke?

Bai, norbaiti lanen bat interesatuko balitzaio nirekin kontaktuan jar liteke. Instagram erabiltzen dut victoria.artstudio izenarekin, Facebook ere badaukat VictoriaChernenkoArtist izenez aurkituko nauzue, emaila ere badut victoriachernenko4@gmail.com domeinupean eta telefonoz ere kontakta nazake nahi duenak 611091739 telefono zenbakian. Pintura klaseak ere ematen ditut norbaiten interesekoak badira ere.

Bestelako arte plastikoak ere lantzen dituzu?

Ukrainan batzuetan eskultura ere egiten nuen, baina pintatzea izan da nire pasio nagusia betidanik.

Ukrainan umeei arte ederrak erakusten zenizkien. Euskal Herrian ere hori egiteko aukera duzu?

Lasarten pintura klaseak ematen dizkiet Ukrainatik etorritako haur eta gaztetxoei. Gaztelera ikasten ari naiz orain eta ukrainiarrontzat klaseak ere badauzkagu. Beraz, gaztelera ikasteaz gain, pintxoak egiten ere ikasten ari naiz.

"Ura eta elektrizitatea moztu zizkiguten eta derrigorrez alde egin beharrean aurkitu ginen"

NOAUA! Gerra hasi eta handik gutxira etorri zineten Lasarte-Oriara bizitzera, ezta?

Victoria Chernenko: Bai. Errusiarekin muga egiten duen zonaldean bizi gara eta segituan sartu ziren tropa errusiarrak gure herrian. Ura eta elektrizitatea moztu zizkiguten eta derrigorrez alde egin beharrean aurkitu ginen. Nora joan ez genekien, baina nire alabari Euskal Herria asko gustatzen zaio eta niri Espainiak ere atentzioa deitzen zidan. Donostian izanak ginen eta asko gustatu zitzaigun hiria. Beraz, alde egin behar genuela ikusita, Donostia ingurura etortzea erabaki genuen. Alaba, ama eta hirurok Lasartera joan ginen bizitzera.

Behin gerra amaituta Ukrainara itzultzeko asmoa duzue ala hemen geratuko al zarete?

Ez dakigu oraindik egun hori noiz izango den, baina gu hemen oso gustura gaude eta ziur aski hemen geratuko gara. Alabak Pasaiako jatetxe batean egiten du lan eta ni pintura klaseak eman eta gauza berriak ikasten oso gustura nabil. Arkitektura eta gastronomiarekin ere maiteminduta nago.

Errigoraren udaberriko kanpaina, zigilu propioarekin

Errigorak Nafarroa hegoaldea eta erdialdea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, "eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz". Era berean, Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da. Bide horretan, urrats berri bat eman du Errigorak, ostegun honetan abiaraziko duen udaberri parteko kanpainaren atarian. Errigora Balioak identifikatzailea sortu eta aurkeztu berri dute.

'Errigora Balioak' identifikatzailea sortu eta aurkeztu berri dute.

"Euskara, elikadura burujabetza eta auzolana bultzatu nahian, gurekin bat egin duten Nafarroako Erdialdeko eta Erriberako ekoizleekin, urteetako bide bat urratzen joan gara". Orain, Errigoraren komunitatearekiko konpromisoa sakontzeko asmoz, "beste urrats bat elkarrekin ematera goaz. Errigora Balioak identifikatzailea sortu dugu horretarako".

Lau balio

Lau ardatz edo balio ditu identifikatzaile berri honek. Batetik, bertakotasuna. "Identifikatzaileak ziurtatzen du produktua Ager zonaldeko jatorrikoa dela. Produktu bakoitzaren trazabilitatea jasota dago ekoizleak egin duen Autoebaluaziorako Adierazpen Arduratsu baten bidez".

UDABERRIKO KANPAINA

"Martxoaren 9tik 29ra egin behar dira eskaerak. Produktuen banaketa maiatzaren 12an eta 13an egingo da Udarregi ikastolan"

Bigarrenik, euskara. "Identifikatzaileak ziurtatzen du produktua elaboratu duen ekoiztetxean euskara normalizatzeko plana garatzen ari dela. Euskararekiko konpromisoa ekoizle talde osora zabaldu da, euskara planek norberaren errealitatearen arabera erritmo eta garapen ezberdina badute ere".

Hirugarrenik, auzolana. "Identifikatzaileak ziurtatzen du produktuak elaboratu duen ekoizlea Errigorak antolatzen dituen auzolanetako partaide dela. Errigoraren auzolana era ezberdinetara gauzatzen da urtean zehar: kanpainetan banatzen diren saskiak osatu, bisitak, hitzaldiak...".

Nekazariarekiko harremana da identifikatzaile berri honen laugarren Errigora Balioa. "Identifikatzaileak ziurtatzen du produktuaren ekoizpenean erabiltzen den osagai nagusia landu duen nekazariarekiko harremana bidezkoa izan dela. Nekazariak ez diren ekoizleek euren produktuak elaboratzeko nekazari jakinei erosten diete lehengaia. Bitartekaritzarik gabe, gertuko eta elkarlaneko logikak nagusitzen dira harreman hauetan".

"Bete ezazu despentsa!"

Balio horietan zuzenean eragiteko aukera ederra dugula gogorarazi digu Errigorak, martxoaren 9an abiaraziko duen "eskutik eskura" kanpainarekin. Hartara, nekazari eta elaboratzaileen arteko bidezko harremana bermatu, euskara sustatu eta gainera, "lur-eremu berriak jartzen dira bestelako ereduen esku, ekoizpen arduratsuan oinarrituta eta kanpotik ekartzen genituen produktuen ekoizpena berreskuratuz, elikadura burujabetzara bidean. Bete ezazu despentsa!", egin dute gonbita.

Etxeko despentsa "Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estrarekin (bidoika) eta kontserba, pasta, arroz eta lekale sortekin (12 unitateka)" betetzeko deia egin du Errigorak, "auzolanari esker, zure herrian ekoizlearen etxean duen prezio berean".

"Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpaina

- Aukeran izango diren produktuak: oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak.
- Epea: martxoak 9-29.
- Eskaerak: online errigora.eus bidez edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.
- Banaketa: maiatzaren 12an eta 13an Udarregi ikastolan.
- Ordainketa: online eginez gero bi zatitan edo dena batera ordaintzeko aukera. Bestela, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.
- Informazio gehiago: errigora.eus

Nepalgo emakumeak laguntzeko aste solidarioa antolatu dute Udarregin

Hezkuntzaren bidez, "Nepaleko neskato eta emakumeen etorkizunean aldaketa bat lortu nahi dugu. Ikasteko aukera emanez, emakumeak lan-munduan sartzeko aukera handiagoa du, erabakitzeko ahalmen handiagoa eta baliabide gehiago familia nahiz komunitatea mantentzeko". Eta horretan dihardu Nepaldala Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE); haurren ezkontza murrizten, neskei ikasketak ahalbidetzen, emakumeen trafikoaren aurkako borrokan, emakumeak ahalduntzen laguntzen edota "Chhaupadi" bezalako ohitura arriskutsuak desagerrarazten.

Sostengu lan honetara batu dira orain Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleak. Azken hiruhilekoan, garatuak dauden eta garabidean diren herrialdeetako bizi-baldintzak aztertu dituzte, tokian tokiko osasuna, hezkuntza eta bestelako zerbitzuen egoera nolakoa den. Behaketa lana soilik ez, ekarpenen bat ere egin nahi zuten eta aipatu GKE-koekin hartuemanetan jarri ziren. "Nepalalda laguntzeko proiektu bat martxan jarri dugu", berri eman diote ikasleok NOAUA!ri. Diruz lagunduko dute GKE hau, eta horretarako, elkartasun ekimen astea iragarri dute martxoaren 13tik 17ra. Denda eta korrika solidarioa antolatu dituzte. Hitzorduokin bildutako dirulaguntza Nepalaldara bideratuko dute. "Guk ateratako dirua, Nepalgo zonalde batean hezkuntza jasotzeko zailtasuna duten emakumeei laguntzeko erabiliko dugu", adierazi digutenez.

Udarregi ikastolako LH6 mailako ikasleek elkartasun aste bat iragarri dute. Martxoaren 13tik 17ra gauzatuko da.

LH 6. MAILAKO IKASLEAK

"Denda eta korrika solidarioa iragarri dituzte. Hitzorduokin bildutakoa Nepalalda gobernuz kanpoko erakundearen esku utziko dute"

Kontzientziazioa

Herri osoari zuzendutako lasterketari dagokionez, ez dela lehiakorra izango ohartarazi dute antolatzaileek. Bakoitzak bere erritmoan osatu ahalko du, lasterka edo oinez. "Ez da beharrezkoa ibilbide osoa egitea". Lasterketarako dortsalak datorren aste osoan Agerialdeko frontoi estalian kokatuko duten denda solidarioan eskuratu ahalko dira. Baita egingo duten elkartasun zozketarako errifak ere edota beste hainbat material.

"Proiektu hau landuta nahi dugu jendea konturatzea munduan badela jendea laguntza behar duena. Guk gure inguruan ikusten dugu gure bizi-baldintzak nahiko onak direla eta ez gara konturatzen beste herrialdeetan nola bizi diren. Ekimen honekin nahiko genuke transmititu toki guztietako baldintzak ez direla berdinak". Zehazkiago, Nepalen, "bizi baldintza oso txarrak dituztela, batez ere emakumeek". Adibide moduan jarri digute, bertako emakumeek hilekoa dutenean bizi behar duten tratu krudela. "Gizonek txabola txiki-txiki batzuetara eramaten dituzte eta han uzten dituzte. Haien pribilegioak galtzen dituzte, ezin dute familiarekin harremandu bost egunez. Bakarrik egoten dira. Hamar urteotan hainbat emakume hil dira baldintza horietan". Horregatik, zorteduntzat jotzen dituzte "hezkuntzarako baliabideak" dituztenak.

Aldaketa sustatzeko

Errealitate hau iraultzen lagundu nahi dute. "Hezkuntzaren bidez, Nepalgo neskato eta emakumeen artean aldaketa bat eragin nahi dugu. Ikasteko aukera emanez, emakumeak lan-munduan sartzeko aukera handiagoa du, erabakitzeko ahalmen handiagoa eta baliabide gehiago familia nahiz komunitatea mantentzeko".

Elkartasun Astea, egitaraua

Martxoak 13-16
Astelehenetik ostegunera:

■ 16:20-16:40 Denda solidarioa Agerialdeko frontoi estalian: martxoaren 21ean zozketatuko duten bertako produktuez hornituriko otarrerako errifak 2 eurotan (ikastolako idazkaritzan ere salgai) eta lasterketarako dortsalak 5 eurotan salgai (0000 dortsala borondatearen truke), baita motxilak, karterak, egutegiak...

Martxoak 17, ostirala
Korrika solidarioa frontoitik:

■ 18:00 Txikiak. Ibilbidea: frontoia, Bordatxoko biribilgunea, Zubiaurrenea, Askatasuna plaza, frontoia.

■ 18:30 Gazteak eta helduak. Ibilbidea: frontoia, Bordatxoko biribilgunea, Puntapax kalea Aranerrekara arte, Errekatxiki kalea Zubiaurrenearen lotunera arte, Askatasuna plaza, frontoia.

Oinez nahiz korrika egin osatu ahalko dira ibilbideok. Baina lasterketa ez da lehiakorra izango.

■ Denda solidarioa frontoian jarriko dute. Bertan, besteak beste, aste osoan zehar salgai izango dituzten produktuekin batera, ikasleek sukaldaturiko pintxoak (1,50 euro) eta iturriko ura dastatzeko aukera.

Informazio gehiago:
nepaldala.org

Antolatzailea:
Udarregi ikastola.

Irudi engainagarriak

Hamar txatal hauen artetik erdiak (5) irudi nagusitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereiz itzazu.

Sudokua

Z		H		K	
	I			Z	H
A		I			
	H		I		T
	K			T	
H			K		A

Liburuetan HITZAK aurkitzen dira, ezta? Bete hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiak (H, I, T, Z, A eta K) toki egokian jarriz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.

TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko atala. Soluzioak 20. orrialdean.

Nork zer

Gure laguntxoek liburu bana irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?



1

2

3

4

Handienetik txikienera

Lagundu bikote honi bere liburuak apalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 9. Bide batez, beheko irudia margotu.



Soluzioak 20. orrialdean.

Emakumeen Etxeari buruzko asanblada jendetsua eta mamitsua izan zen

Asanblada irekian 60 bat emakumek hartu zuten parte.

Bertsolariek girotu zuten asanbladaren ondorengo bazkalostea.

Emakumeen Etxeari buruzko asanblada deitua zuen Udalak larunbat goizerako. Dozenaka eta dozenaka emakume hurbildu zen Potxoeneara proiektuan proposamenak egiten jarraitzeko asmoz eta dinamika batzuk egin zituzten espazioa definitzen jarraitzeko.

Ekarpenak egiteko aukera

Goizean pare bat orduz asanblea eta dinamika batzuk egin zituzten Potxoeneara hurbildutako 60 bat emakumek. Denetariko ekarpenak eta iritziak partekatzeko aukera izan zuten denekin. Behin asanblada amaituta, Artzabalen bertso-bazkari eder batez gozatzeko aukera izan zuten emakumeek menu oparo batekin.

Bazkaltzen amaitu ondoren, bertso-saio ederra eskaini zuten Maialen Lujanbio, Jone Uria eta Saioa Alkaiza bertsolariek, Amaia Agirre gai-jartzaile zutela.

2023ko martxoaren 8rako adierazpena

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzeko eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea

Otsailaren 23ko ohiko bilkuran bat etorri ziren udal ordezkari guztiak. Argazkia 2020ko martxoaren 8an eginikoa da.

eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030ean, Garagen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuaren eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloak erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartze ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemailetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezkoa da...

- Botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten erresistentziei eta inertziei aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersekzionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.
- Zaintza-lanen banaketa erantzukidean aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.
- Zaintza eta bestelako lan feminizatuen sektore profesionala prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- Emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten estereotipo eta aurreiritziei aurre egitea.
- Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- Lidergoan jarduteko praktikak eta moduak deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintza mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratuz.
- Emakumeen eta nesken eskubideak ikuspegi intersekzionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

Horregatik, euskal udalerriok, gure eskumenen markoan, konpromiso hauek hartzen ditugu: emakumeen lidergoa bultzatzea eta botere berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

1- Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzailearekin jarraitzea eta proiektua sendotzea.

2- Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzen jarraitzea.

3- Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.

4- Berdintasun-planean intersekzionalitatea indartzea eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.

5- Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko.

6- Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk.

7- EUDELeri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitzeko gaitasunari buruzko ikerketa bultza dezala eta ordezkaritza orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.

Udalbatzak aho batez onarturiko mozioa.

Hirusta Trio taldeak borobilduko du Martxoaren 8ko egitaraua

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolaturiko ahots, piano, testu eta ikusentzunezkoek osatutako kontzertuak borobilduko du Martxoaren 8ari lotuta herrian antolaturiko ekimen zikloa. Larunbat honetan izango da, martxoaren 11n, 19:00etan Sutegin. Sarrerak aurrez 5 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dituzue.

Hirusta Trio Sutegin arituko da larunbat honetan, arratsaldeko 19:00etan.

Garbiñe Abendaño abeslari sopranoak, Margarita Lorenzo de Reizabal piano-jole eta ikus-entzunezkoen arduradunak eta Julene Zenikazelaia errezitatzaile eta gidoilariak osatzen dute Hirusta Trio. "Matrioshkaren figurak eratuko du gure ikuskizunaren haria, berarengan ikusi nahi izan baititugu emakume bakoitzaren barnean dauden emakume guztiak, humanitatearen historian partaide ezinbestekoak".

Ukrainako gerrari lotuta dago hein handi batean ikuskizuna eta ikuskizunaren bitartez irudikatu nahi duten ideia. "Ukrainako eta Errusiako emakumeek amankomunean zutena ikertzerakoan atera zen matrioshkaren irudia", aurreko asteko NOAUA!n plazaratu genuen elkarrizketan zioten moduan. "Emakumeak izan behar luke elementu kohesionatzailea. Jatorria edozein izanda ere berdin sentitzen dugu. Ze pena, interes berak izanda borrokatu beharra izatea. Kontzertuan zehar matrioshka bat aurkezten dugu. Julene, irekitzen doa bat bestearen atzetik, poema bakoitzaren ostean. Matrioshka da kontzertuaren ikurra".

HIRUSTA TRIO

"Matrioshkarengan ikusi nahi izan dugu emakume bakoitzaren barnean dauden emakume guztiak"

AEK-ren literatura lehiaketa

Parte-hartzaileak

- 18 urtetik gorakoei zuzendurikoa da txapelketa.
- Usurbilen erroldatua egon beharko du edo Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua lanak bidaltzeko unean.

Lehiaketaren ezaugarriak

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketaren batera bidali gabeak ere.
- Euskaraz idatziak behar dute.
- Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarririk onartuko. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne.

Informazio gehiagorako:

- blogak.eus/etumeta-euskaltegia-aek
- 607 609 379.

Aginagako Herri Kooperatibaren fundazio ekitaldia

"Aginagako Herri Kooperatiba sortzera goaz!". Hala jakinarazi dute Aginagatik. Bere fundazio eguna antolatu dute, igande honetan, martxoaren 12an, 12:00etan Eliza Zaharra Elkargunean. "Bertan, ekimenaren fundazio eguna ospatuko dugu. Gure ideia azaldu, taldea aurkeztu eta luntx girotua izango dugu". Hitzordura bertaratzeko gonbita egin du Aginaga Biziberritzen taldeak. "Animatu eta zatozte gurekin batera ospakizunera".

Igande honetan, eguerdiko 12:00etan Eliza Zaharrera hurbiltzeko deia luzatu du Aginaga Biziberritzen taldeak.

Udazkenean zehar bideratu duten hausnarketa prozesutik dator herri kooperatibaren ekimena. "Bada denbora bat, zenbait herritar Aginagako herriaren egoerari aurre egiteko elkarrekin batu eta hausnartzen hasi ginenetik". Gogoan izan, 2022ko azken hiruhilekoan galdeketa bat egin zuten aginagarren artean, haien bizi-kalitateari, behar eta erronkei buruz.

Denda bat zabaltzeko beharra

Ordutik, parte hartzeari lotuta Gipuzkoako Foru Aldundira aurkeztu eta onarturiko diru-laguntzarekin, "taldea zertxobait zabaltzea lortu dugu eta horri esker, gure behar ezberdinak asetzeko herri kooperatiba bat sortzeko asmoa piztu da. Figura honen bitartez, hainbat proiektu eta bide jorratzeko tresna bat eskuratzeko asmoa dugu. Besteak beste, orain arteko topaketen ondorio nagusietako bat, eguneroko erosketak egiteko denda bat zabaltzeko beharra partekatzen dugula izan da. Eta, ekitera goaz".

Hasi da Aginaga Winter Series txapelketa

Aginaga Winter Series pala txapelketa asteburuan hasi zen jokatzen Hariztitxo pilotalekuan. Hamabi bikoteren arteko lehia izango da aste hauetan Aginagako lehen txapelduna aukeratu arte.

Finala martxoaren 25ean izango da Hariztitxo frontoian 18:00etan hasita. Ondoren, Eliza Zaharrean sari banaketa egingo dute, parte hartzaileen artean zozketak egingo dituzte eta jaialdi bat egitea ere aurreikusi dute.

Asteburu honetan jokatuko da bigarren jardunaldia Aginagako Hariztitxon.

Lehen jardunaldia, emaitzak:
Martxoak 3, ostirala
■ 17:00: Agirretxe-Lorenzo: 16.
Albaro-Haitz: 0.
■ 18:00: Alazne-Iban: 2.
Jon Zumeta-Imanol Galarraga: 16.

Martxoak 4, larunbata
■ 15:00: Leire-Ane: 5.
Jokin-Enrike: 16.
■ 16:30: Jon Iartza-Pedro Labaien: 16.
Axi Aranguren-Amaia Munilla: 11.
■ 17:30 Beñat-Andoni: 16.
Inaxio-Dolo Errasti: 6.
■ 18:00: Josu Arruti-Asier Arruti: 16.
Oxkar-Murua: 6.

Sailkapena:
A taldea:
P.- Izenak-Pu-I-TA-TK-TD*
1-Jokin-Enrike (2-1-16-5- + 11).
2-Beñat-Andoni (2-1-16-6- + 10).
3- Inaxio Murua-Dolo Errasti (1-0-6-16--10).
4- Leire-Ane (1-0-5-16--11).

B taldea:
P.- Izenak-Pu-I-TA-TK-TD*
1-Jon Zumeta-Imanol Galarraga (2-1-16-2- + 14).
2- Jon Iartza-Pedro Labaien (2-1-16-11- + 5).
3- Axi Aranguren-Amaia Munilla (1-0-11-16--5).
4- Alazne-Iban (1-0-2-16--14).

D taldea:
P.- Izenak-Pu-I-TA-TK-TD*
1-Agirretxe-Lorenzo (2-1-16-0- + 16).
2 Josu Arruti-Asier Arruti (2-1-16-6- + 10).
3- Oxkar-Murua (1-0-6-16--10).
4- Albaro-Haitz (1-0-0-16--16).
* Oharrak: *P.- Postua.*
Pu: Puntuak.
I.- Irabaziak.
TA.- Tantoak alde.
TK.- Tantoak kontra.
TD.- Tanto diferentzia.

Bigarren jardunaldia, martxoak 11, larunbata
■ 11:00- Beñat-Andoni/ Jokin-Enrike.
■ 16:00: Jon Iartza-Pedro Labaien/ Jon Zumeta-Imanol Galarraga.
■ 16:45: Albaro-Haitz/ Oskar-Murua.
■ 17:30: Alazne-Iban/ Axi Aranguren-Amaia Munilla.
■ 18:15: Agirretxe-Lorenzo/ Josu Arruti-Asier Arruti.
■ 19:00: Leire-Ane/ Inaxio-Dolo Errasti.

80 herrikide Lilatoian

Donostiako 33. Lilatoia aspaldiko parte-hartzaileena izan zen. Sei mila emakumeren artean, 80 herrikide topatu ditugu antolatzaileen datuetan.

Sei mila emakumek osatu zuten ibilbidea. Argazkia: DYA Gipuzkoa.

Zubieta
Alazne Olaizola Iparragirre 00:41:57

Usurbil
Maddi Lorenzo Olasagasti 00:21:39
Lucia Ucar Gonzalez 00:24:55
Arantxa Zubizarreta P. 00:25:57
Eider Zabaleta Molina 00:27:46
Luisa Rodriguez Moreno 00:29:55
Beatriz Irasuegi Salsamendi 00:29:56
Agurtzane Beraoechea L. 00:31:31
Irati Arruti Mendizabal 00:32:20
Noelia Perez Alcalá 00:32:45
Eki Arbizu Zabala 00:32:52
Maier Tapia Alkorta 00:33:44
Lurdes Salaberria G. 00:33:44
Leire Guisado Cobo 00:33:46
Izaro Lopez Dorronsoro 00:33:46
Maddi Esnaola Lizaso 00:34:02
Izaro Arruti Tapia 00:34:14
Maider Valin Salaberria 00:34:14
Enara Arrospide Rueda 00:34:14
Onintza Gartzia Udabe 00:35:31
Ane Irazusta Larrea 00:36:29
Itziar Irazusta Larrea 00:36:30
Oihane Juanena Muguruza 00:36:49
Amaia Ullate Izaguirre 00:37:08
Nerea Goizueta Garmendia 00:37:09
Oihana Jardón Piérola 00:37:22
Amaia Bengoetxea A. 00:37:25
Sonia García Rodríguez 00:37:27
Oroitz Etxeburu Uranga 00:37:28
Ainhoa Jauregiberri I. 00:37:33
Libe Agirre Plaza 00:37:34
Andrea De Moura Arrojeria 00:37:35
Ainhoa Lizaso Egileta 00:37:34
Maria Hernandez Arregi 00:37:34
Uxue Fernandez Lasa 00:37:44
Yolanda Arrieta M. 00:38:08
Lide Arriaga Barreña 00:38:37
Leyre Barreña Goikoetxea 00:38:38
Laida Gonzalez Ibirriaga 00:38:38
Leire Zubigarai Portu 00:39:01
Haira Rivero Arrieta 00:39:02
Iratxe Begiristain Otegi 00:39:28
Igone Goikoetxea Balda 00:39:29
Marian Sola Lizarrondo 00:39:29
Naiara Fernandez Perez 00:39:29
Maider Izagirre Sarasola 00:39:29
Arantxa Usarralde Aranzadi 00:39:29
Irati Miguel Manterola 00:39:30
Malen Lanz Garcia de Eulate 00:39:30
Miren Azkonobieta M. 00:39:30
Maider Andrés Soroa 00:39:30
Elixabete Udabe Pagola 00:39:30
Agurtzane Alkorta U. 00:39:30
Alazne Arruti Bengoetxea 00:39:31
Miren Unsain Izeta 00:39:31
Oihana Sagarna Aranburu 00:39:31
Maialen Sagarna Aranburu 00:39:31
Itziar Dorronsoro Ariz 00:39:31
Dolores Elkano Irurtia 00:39:35
Carmen Vidal Urdampilleta 00:39:36
Leire Lizarralde A. 00:39:42
Patricia Fernández Trujillo 00:40:23
Saioa Vallejo Illarramendi 00:40:37
Isa Amo Arias 00:40:37
Cris Agra Bouzas 00:40:38
Amaia Artola Azkue 00:40:41
Esti Etxeberria Iñarra 00:40:42
Soraya Romo Gallardo 00:40:43
Sheila Santamartina S. 00:40:44
Joana Amézaga Velasco 00:40:49
Josune Estella Arranz 00:41:22
Marimar Estella Arranz 00:41:23
Ane Estella Arranz 00:41:23
Irati Portu Alzaga 00:41:34
Amaia Etxeberria M. 00:41:34
Ianire Senperena Arrona 00:45:55
Esther Isasa Loyarte 00:47:55
Karmele Matxain Maiz 00:47:56
Milagros Pagola Aizpurua 00:58:41
Beatriz Gorriti Zuloaga 00:58:42

“Laburmetraia oso surrealista da eta nire pertsonaiak ere ildo hori jarraitzen du”

Martxoaren 19an izango da aurtengo Laburbira, film labur sorta eder batekin. Tartean izango da ‘Erlojupekoa’ izenekoa. Lan honetan Jontxu Martinez herrikideak parte hartu du. Laburbiraren proiekzioaren amaieran, solasaldian izango da Leire Egaña zuzendariarekin batera. Lan berri honetaz eta aktorearen ofizioaz aritu gara hizketan Jontxurekin.

Jontxu Martinezek ‘Erlujopekoa’ film laburrean hartu du parte.

NOAUA! “Erlojupekoa” film laburrean parte hartu duzu. Hitz gutxitan, zeri buruzko filma da?

Jontxu Martinez: Rider baten istorioa da. Janaria etxez etxe eramaten duten pertsonak dira riderrak Globo, Uber edo horrelako enpresentatzat lan egiten dutenak. Rider honi eskaera leku batera eramatea tokatzen zaio eta Road Movie baten moduan, bide bata jarraituz pertsonaia batzuk aurkitzen ditu Galdakaoko kaleetan. Herriko jaietan kokatutako filma da. Umoretik, zientzia fikziotik eta surrealismotik elikatutako lana da.

Zein da zure pertsonaiaren rola?

Eszena txiki bat daukat nik. Ez dut hitzik esaten, baina riderrak aurkitzen duen pertsonaia bat da. Beldurgarria izan daitekeen pertsonaia bat da, baina komikoa da, batez ere. Laburmetraia oso surrealista da eta nire pertsonaiak ere ildo hori jarraitzen du. Lan honek ez du gai seriorik jorratu nahi edo istorio gogor dramatiko bat oinarri hartu.

JONTXU MARTINEZ

“Herriko jaietan kokatutako filma da ‘Erlojupekoa’. Umoretik, zientzia fikziotik eta surrealismotik elikatutako lana da”

Nola sartu zinen proiektu honetan?

Udalbiltzako diru-laguntza banaketan, herri bakoitzari pertsona edo lantalde bat tokatu zitzaion. ‘Bost teilatu’ izena duen proiektua Galdakaori tokatu zitzaion, Bira Produkzioak taldearen gidaritzapean. Laburmetraia Galdakaon grabatzeaz gain, herritarrek ere parte hartzea nahi zuten sorkuntza lan horren alor guztietan: gidoiak egiten, kamera atzean lanean, kamara aurrean lan egiteko… Ni Usansolokoa naiz, Galdakao ondoko herri batekoa eta casting-ean izena eman nuen beste hainbatek bezala. Casting-aren bidez Galdakaoko jendea nolakoa zen ezagutu nahi zuten paper txikiak egiteko. Hainbat pertsonaia egin behar izan genituen proba horietan: mozkorrarena, txakur bat paseatzen duenarena, geure burua…

Behin probak amaituta, nire pertsonaia egiteko beste pertsona bat aukeratu zuten. Orain estreinatu berri den *Irati* filma grabatzeko deitu zioten eta, beraz, ni izan nintzen bigarren hautatu hori. Musutruk egin nuen lan bat izan zen eta goiz batean grabatu genuen lan bat izan zen. Oso paper txikia da nirea hitzez, baina badu halako presentzia.

Lan gehiago egindakoa zara zinema munduan, ezta?

Pandemia aurretik lan batzuk egin nituen, antzerkian, batez ere. Bilboko antzerki eskola batean jaso nuen formakuntza. Gaur egun geroz eta antzerki eskola gehiago daude, batez ere Bilbo inguruan. Donostian TAE daukagu, adibidez, eta Bilbon EHUrena den Dantzerti edota bestelako dozena bat eskola. Bilbo inguruko herri askotan ere badaude: Getxon, Erandion, Barakaldon, Basaurin… Antzerkian zazpi bat urtetik aritu naiz eta modu profesionalean 2018z geroztik.

Pandemia ondoren, antzerkiak indar handia galdu du, baina egin ditut bestelako lantxo batzuk “Erlojupekoa” gisan edo bestelako laburmetraia batzuetan ere.

20. Laburbira

Euskarazko zazpi film laburren emanaldia

■ Martxoak 19 igandea.

■ 18:30ean Sutegin. Ondoren, solasalditxoa.

■ Sinopsia: “Gaur egungo zinemagintzaren lagin aparta izaki, gure sortzaileen lanaz gozatzeko aukera emango die herritarrei; eduki zein estiloz denetariko pelikulekin osatua dator-eta film-labur sorta”.

■ Filmak: *Muskil, Olatuen isiltasuna, Irrits, Erlojupekoa, Hitzak, Asko falta da?, Koadro goriari heldu*.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

“Euskal zinemagintza oso indartsu dago”

NOAUA! Antzerkitik bizitzea posible al da gaur egun?

Jontxu Martinez: Aitziber Garmendia edo aktore ezagun hauetakoren bat izanez gero, ziur aski bai, baina Jontxu Martinezek ez. Antzerkitik bizi direnek telebista edo zineman paper txikiak izaten dituzte, eta modu horretan bizibidea atera daiteke. Hala ere, gure sektorean %70eko langabezia-tasa dago. Ni neu orain beste sektore batean ari naiz lanean denontzat beste lanik ez dagoelako antzerkian.

Usurbilen zortea izan dezakezu kulturgileentzako diru-laguntzak daudelako, baina modu askoz sistematizatu eta globalagoan behar dira laguntzak egoera aldatu ahal izateko.

Baduzu orain proiekturen bat?

Ez, orain ez daukat proiekturik. Berriki Alex Tello usurbildarrarekin aritu naiz lanean. Film bat grabatzen aritu da bost bat urtez eta duela hilabete amaitu zuen grabaketak egiten. Aginagan izan ziren grabaketa duela hilabete eta gonbidatu egin gintuen eszenatxo bat grabatzera aginagar eta usurbildar batzuk.

Martxoaren 19ko proiekzioaren ondoren, solasaldia egingo da Sutegin. Leire Egaña zuzendariak eta Jontxu Martinez aktoreak hartuko dute parte.

JONTXU MARTINEZ

“Gure laburmetraiarekin barre egiteko aukera izango da”

Gogoa badut gauza gehiago egiteko, baina oraintxe ez dut beste ezer eskuartean. Oholtza ez dut inoiz utziko, hori argi daukat, baina orain bizi edo biziraun beharra daukat. Hala ere, antzezlan bat amaitu eta txaloak jo arteko isilune magiko hori bizi beharra daukat, droga moduko bat da eta hori kontsumitu beharra daukat.

Leire Egaña ‘Erlojupekoa’ laburmetraiko zuzendariarekin izango zara Laburbiraren proiekzioaren ondorengo solasalditxoan, ezta?

Leire Egañak aspektu teknikoak azaldu ditu eta denetariko anekdotak eta nik nire esperientziari buruz hitz egingo dut eta zein ondo pasatu nuen kontatuko dut eta grabaketetako sekretu txikiak.

Bestetik, gure laburmetraiarekin barre egiteko aukera izango da eta beste batzuekin agian negar edo beste zerbait. Euskal zinemagintza oso indartsu dago orain, *Irati* filma ere arrakasta ederra izaten ari da eta hori elikatzen jarraitu beharra dago eta euskal kulturaz gozatzeko.

‘Irati’, apirilaren 2an Sutegin

Estreinatu zen asteburuan EAE-ko zinemetan ikusiena izan zen filma proiektatuko du NOAUA! Kultur Elkarteak apirilaren 2an 19:00etan Sutegin. Sarrerak dagoeneko 6 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA!ren egoitzan. Kultur elkartean bertan, NOAUA!-ko bazkideek merkeago, 4 euroren truke.

Sarrerak dagoeneko eskuragarri usurbilkultura.eus web orrian.

NOAUA! K.E.-ren batzar nagusia

Gaur egun, 456 bazkide ditu NOAUA! Kultur Elkarteak. Haiei guztiei zuzenduriko deialdia duzue honakoa. Bazkideen urteko batzar nagusia deitu du kultur elkarte honek martxoaren 14an asteartea, Potxoenean.

Lehen deialdia 17:30erako finkatu dugu, 18:00etan bigarrena. Hemen ahotan hartuko ditugun gaiak:

Martxoak 14 asteartea: NOAUA! Kultur Elkartearen 2023ko batzar nagusia

1.- 2022ko memoria eta dagokion balantze ekonomikoa.

2.- 2023ko egitasmoak eta 2023ko aurrekontuak.

3.- NOAUA! Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.

4.- Galdera-erantzunak.

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Herri bizitza dinamizatzeko egutegi digitala

Aurrerantzean, herriko bizitzaren kudeaketak euskarri berri bat izango du; Usurbilgo Kulturgunea Udalarekin batera eragileentzat garatzen ari den egutegi digitala. Bertan herrian zer dagoen kontsultatu eta Usurbilen urtean zehar izango ditugun hitzorduak kokatuko dituzte.

"Egutegi digital hori antolatzaile diren herriko eragileek erabiltzea nahi luke Kulturguneak, ekintzen antolaketa errazteko tresna izan daitekeelako", Kulturgunetik aditzera eman dutenez. Baliabide honen erabilera sustatuta, une jakinetan izan ohi den ekintzen pilaketa saihestu edota eragileen arteko lankidetzarako esparrua zabaldu nahi dute. "Eragileen arteko sinergiak sorrarazi nahi dira, ekintzak antolatzeko eta berauetan parte hartzeko".

Egutegi digitalerako sarbidea eskuratzeko usurbilgokulturgunea@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Egutegi erabilterraza dela nabarmendu dute Kulturgunetik. Zer eta noiz dagoen kontsultatu eta "behin-behineko data zehaztu ondoren, oso modu errazean erreserba daiteke eguna egutegi digitalean. Galdetegi bat besterik ez da erantzun behar". Tresna berri honek modu egokian funtziona dezan, garrantzitsutzat jotzen dute "eragileen inplikazioa eta eskuartean dituen ekintza-asmoen berri ahalik eta azkarren helaraztea, egutegian zintzilikatu ahal izateko. Modu horretan, urrats esanguratsuak egin genitzake ekintzak herri ikuskera baten baitan antolatzeko". Kulturgunearen berri jaso nahiz egutegi digitalerako sarbidea eskuratzeko usurbilgokulturgunea@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Ekimenak proposatu eta antolatzeari dagokionean, zenbait proposamen landu ditu gainera Kulturguneak: kultur adierazpide desberdinen eskaintza bermatu eta orekatzea; euskarazko ekintzak lehenestea; herriko sortzaileak kontuan izan eta zaintzea; emakumezkoen sortzaileen presentzia sustatzea; egindakoaren berri zabaltzea; herri nahiz auzoetako plazak erabiltzea; belaunaldiartekotasuna lantzeko aukera aztertu eta transmisio-gaiak gogoan izatea…

Sortzaileen katalogoa

Eragileen bidelagun izan nahi du Kulturguneak eta aurrera begirako bi erronka plazaratu ditu. Batetik, herri eragileak sare sozialetan Kulturgunea etiketatu edo aipatzera gonbidatzen ditu antolaturiko ekimenen berri gehiago hedatzeko. Azkenik, antolatzaileen esku utziko duten herriko sortzaileen katalogoa osatzea.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak





ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Alokairuan

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume batentzako. 618032966

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarrerako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m^2 garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest daudenen zerrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketak egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingeleseko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoan galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Futbol partidak

Harane futbol zelaian:

Martxoak 11, larunbata

■ 10:15 Infantil mutilak: Usurbil FT-Vasconia CD A
■ 12:00 Kadeteak: Usurbil FT B-Kosktas KE E
■ 16:30 Jubenilak: Usurbil FT A-Touring KE B

Martxoak 12, igandea

■ 16:00 Preferenteak: Usurbil FT-Ostadar SKT

Multikirolen hausnarketa prozesua

Martxoaren 15ean, 18:30ean Potxoenean. "Eredu desberdinak eta ikasleek erantzundako galdetegien emaitzak aztertu ostean, proposamen zehatzak landuko dira".

Futbol partidak

Kanpoko partidak:

Martxoak 11, larunbata

■ 9:00 Infantil neskak, Hernanin: Hernani CD-Usurbil FT A
■ 11:20 Infantil neskak, Michelinen: Ostadar SKT-Usurbil FT B
■ 12:30 Kadete preferenteak, Zubietan:
-Real Sociedad SAD C
-Usurbil FT
■ 13:00 Kadete neskak, Elgoibarren: Elgoibar CD-Usurbil FT

Martxoak 12, igandea

■ 9:45 Jubenilak, Michelin:
-Texas Lasartearra CF
-Usurbil FT B
■ 12:30 Erregionalak, Astigarragan:
-Mundarro FKE B
-Usurbil FT B

Eskubaloia

Oiardo kiroldegian:

Martxoak 11, ostirala

■ 15:45 Jubenil neskak:
-Urbil-Usurbil KE
-BQD Bidaiak Pulpo EK
■ 17:30 Jubenil mutilak:
-Saizar-Usurbil KE
-BM Bidasoa Irun
■ 19:30 Senior mutilak:
-Usurbil KE
-Labarra Taberna Pulpo EK

Martxoak 12, igandea

■ 12:00 Kadete mutilak:
-Usurbil KE
-Urkunde Elgoibar

Zorionak Jare! Martxoaren 9an urtetxo bat gure sorgintxoak! Muxu pottolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak Luken Pierre! Martxoaren 6an, 6 urte! Muxu asko etxekoen partez.

Heriotzak

Micaela Huici Carrera

Martxoaren 2an hil zen, 88 urterekin

Heriotzak

Milagros Alzaga Illarramendi

Martxoaren 6an hil zen, 92 urterekin

Zorionak Urko! Ondo-ondo pasa zure 7. urtebetetzean. Disfrutatu zure txokolateaz. Muxu asko etxekoen partetik!

Goardiako farmaziak

Osteguna	**09**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala	**10**	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata	**11**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea	**12**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astelehena	**13**	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Asteartea	**14**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteazkena	**15**	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Osteguna	**16**	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	**17**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata	**18**	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea	**19**	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda martxoa

10 ostirala

- **Sagarrondotik Sagardora ikastaroa** 15:30-18:30 Potxoenean. Josu Osa adituaren eskutik.

11 larunbata

- **Oriako 29. Traineru Jaitsiera.** 17:00etan, Aginagatik Oriora.
- **Hirusta Trio taldearen emanaldia** 19:00etan Sutegin.

12 igandea

- **Aginagako Herri Kooperatibaren fundazio eguna.** 12:00etan Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean.

‘Martxoa Gastronomikoa’ Aitzagan

Aitzaga elkarteak antolatu du gastronomia ikastaroa eta ostegunetan batuko dira. “Izen-ematea ikastaro osorako da”, ohartarazi du antolakuntzak. Bide batez, larunbat honetako barrikote bat iragarri dute.

“Martxoa Gastronomikoa”
Martxoak 9, 16, 23 eta 30

- 18:00-21:00 Sukaldaritza ikastaroa Aitzaga elkartean, Elketa jatetxeko Haritz Arruti sukaldariarekin.
- Prezioa: 30 euro.
- Izen-ematea, martxoaren 6a baino lehen 634 464 797 telefono zenbakian. 12 lagunentzako lekua.

Martxoak 11, larunbata

- 14:30 Barrikotea Aitzaga elkartean.

Haritz Arrutik gidatuko du ikastaroa. Argazkia: Maxixatzen.

- Menua: txorixoa, bakalao tortilla, saiheskia entsaladarekin, gazta, menbrilloa eta intxaurrak, kafea, edaria (txotx + ura).
- Prezioa: 30 euro. Txartelak Aitzagan salgai.
- Antolatzailea: Aitzaga elkartea.

Victoria Chernenkoren erakusketa Artzabalen

Victoria Chernenko ukrainarraren margolanak Artzabalgo tabernan topatuko dituzue. Arte ederretako irakaslea, akuarela, oleoa, akrilikoa eta beste teknika batzuk baliatzen ditu. Hilaren amaieran amaituko da erakusketa.

Nerea Zinkunegiren erakusketa Txokoargin

Nerea Zinkunegik margolanez osaturiko erakusketa bat zabalduko du aste honetan Txokoaldeko Txokoargi elkartean.

- Martxoak 10-31 (astelehenetik ostiralera, 10:00-12:00/17:00-19:00, astearte arratsaldea izan ezik), Txokoargin.

Datozenak

‘Gure bazterrak ezagutzen’ Kalezarren

Kalezar inguruetatik barrena irteera antolatu du bertako auzo elkarteak.

Martxoak 19, igandea

- 9:30 Udarregiko goiko frontoitik.
- 12:30ak aldera hamaiketakoa eskainiko da Araneko Kalexarko auzo-elkarteko lokalean.
- Zehaztasunak: “Aranerreka eta Kalexar inguruan mendi ibilbidea egingo dugu mapa hartuta, familia giroan, goiz pasa. Eraman beharrekoak: mendiko oinetakoak, ura, arkatza edo boligrafoa, iparrorratza”.
- Izen-ematea: usurbilkultura.eus

Izena emateko azken eguna: martxoak 16. Izena ematea beharrezkoa da hamaiketakoa antolatzeko.

- Antolatzailea: Belmonte Auzo Elkartea.

Badator Laburbira

Hauek dira aurtengoan ikusi ahalko diren filmak: *Muskil, Olatuen isiltasuna, Irrits, Erlojupekoa, Hitzak, Asko falta da?, Koadro goriari heldu.*

Martxoak 19 igandea

- Laburbira Sutegin, 18:30ean.
- Antolatzailea: NOAUA!.

ADA
–MASAJEAK–
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA, GIZENTASUNA, ELIKADURA ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

MARTXOAK 19, IGANDEA
18:30 SUTEGIN

20 URTE

Laburbira

Euskarazko film laburren XX.zirkuitoa - 2023

SARRERA DOAN



OLATUEN ISILTASUNA

MUSKIL

KOADRO GORIARI HELDU



IRRITS

ASKO FALTA DA?

ERLOJUPEKOA

HITZAK

Usurbilgo Udala

noaua

errigora

errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Bete ezazu despentsa *urte guztirako*

ehbildu

Agurtzane Solaberrieta eta Maialen Iriarte

Aurkezpen Ekitaldia

USURBIL
Abante!

Martxoak 18
Mikel Laboa Plaza
12:30